HITZARMENA, KOMUNITATEAREN GARAPENERAKO GAZTELEKU ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA BIDERATZEKOA, ERREKALDE AUZOKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO ESKU-HARTZE KOMUNITARIOKO PROGRAMA BAT GARATZEKO.

Bilbon, 2026ko xxxxxxxxx xxan.

BILDURIK:

Alde batetik, **ITXASO ERROTETA SAGASTAGOYA** andrea, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria. Hitzarmen honen ondorioetarako, hau da bere helbidea: Venezuela plaza, 2, 5.a, Bilbo.

Eta **JUANA ELA ALMAGRO** andrea, XXXXXXXX NAN zenbakiduna, Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteko Presidentea (IFZ: G48259428). Elkartearen helbidea: Altube zeharbidea, behea, Bilbao.

Alde biek elkarri onartu diote hitzarmen hau egiteko legezko gaitasun osoa, eta horretarako, hauxe

AZALTZEN D U T E

Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko Legeak, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babestekoak, 34. artikuluan, beren-beregi jasotzen du hau: haur eta nerabe guztiek dute eskubidea atseden hartzeko, jolasteko eta beren adineko jolas-jardueretan parte hartzeko, beraien garapenerako funtsezkoa baita hori", herri-administrazioek beharrezkoak diren instalazioak eta jolas-eremuak sortu behar dituzte.

Eta 7. artikuluan hau dio: organismo, entitate eta erakunde publiko eta pribatuek elkarlanean jardun behar dute, eta koordinatu egin behar dituzte beren jardunak, haurrei eta nerabeei arreta koherente, antolatua eta integrala eskaintzeko; jarduteko modu horrek babesgabetasun-egoerei errazago erreparatzea du helburu, esku-hartze

CONVENIO POR EL QUE SE CANALIZA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A LA ASOCIACIÓN DE DESARROLLO COMUNITARIO GAZTELEKU PARA EL DESARROLLO DE UN PROGRAMA DE INTERVENCIÓN COMUNITARIA DIRIGIDO A LA POBLACIÓN INFANTIL, ADOLESCENTE Y JOVEN DEL BARRIO DE REKALDE

Bilbao, xx de xxxxxxx de 2026.

REUNIDOS:

De una parte, **Dª ITXASO ERROTETA SAGASTAGOYA** Delegada del Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao, con domicilio a efectos de este convenio en Plaza Venezuela, nº 2-5º de Bilbao.

De otra parte, **Dª. JUANA ELA ALMAGRO** con DNI XXXXXXXX, Presidenta de la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku, con NIF G48259428 y domicilio en Travesía de Altube, bajo, Bilbao.

Ambas partes con plena capacidad para obligarse con el carácter con el que intervienen,

E X P O N E N

El art. 34 de la Ley del Parlamento Vasco 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia, establece que todos los niños, niñas y adolescentes tienen derecho al descanso, al juego y a las actividades recreativas de ocio propias de su edad, como elementos esenciales de su proceso de desarrollo, imponiendo a las Administraciones Públicas la obligación de velar por su cumplimiento y la creación de las instalaciones y los espacios de juego necesarios.

El art. 7 de esta misma norma determina que Los organismos, entidades e instituciones públicas y privadas tienen la obligación de colaborar y de coordinar sus actuaciones, a fin de proporcionar a la población infantil y adolescente una atención coherente, organizada e integral, que no sólo facilite la detección de situaciones de desprotección, sino que

eraginkorragoak ahalbidetzea eta baliabideen erabilera arrazoizkoagoa izatea.

también permita intervenciones más eficaces y más acordes con una utilización racional de los recursos.

Bilboko Umeen eta Nerabeen Udal Plana da Udalak umeen eta nerabeen eta haien familien aldera duen konpromisoaren adierazpen bat, eta bitarteko bat kolektibo horiek dakartzaten beharrizanak zedarritzeko, eta beharrizan horiei erantzuteko lankidetza bidezko tresnak eskaintzeko.

Que el Plan Municipal de Infancia y Adolescencia del Ayuntamiento de Bilbao constituye la expresión del compromiso municipal con la población infantil y adolescente y con sus familias y la vía para la definición y prestación colaborativa de herramientas para atender a las necesidades que plantean estos colectivos.

Ezarritako helburuak lortzeko, Planak esku hartzeko ildo estrategikoak proposatzen ditu, eta, horien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

Para la consecución de los objetivos que se marca, el Plan plantea líneas estratégicas de intervención, entre las que ahora queremos destacar las siguientes:

1. ildoa. Familiei laguntzea seme-alabak erantzukizunez hazten, neurriak eskainiz norberaren bizimodua eta familia- eta laneko bizimodua uztartzen laguntzeko eta gurasoei eginkizun horretarako tresnak eskuratzeko.

Línea 1. Apoyar a las familias en la crianza responsable de sus hijas e hijos a través de medidas que favorezcan la conciliación y proporcionen herramientas a madres y padres en este campo

6. ildoa. Haurrek eta nerabeek aisialdian eta kultur eta kirol jardueretan parte har dezaten sustatzea, haien gustuen eta beharrizanen araberako eskaintza inklusibo baten bitartez.

Línea 6. Fomentar la participación de niñas, niños y adolescentes en actividades de ocio, culturales y deportivas a través de una oferta inclusiva adaptada a sus gustos y necesidades.

7. ildoa. Euskara jakin dadin eta erabil dadin sustatzea adingabeen bizitzako arlo guztietan, haien kultur nortasunaren osagarri moduan.

Línea 7. Promover el conocimiento y utilización del euskera en todos los ámbitos de la vida de las y los menores como elemento integrante de su identidad cultural.

8. ildoa. Balioetan hezi dadin sustatzea (aniztasunaren errespetua, genero berdintasuna...), eta orobat agente hezitzaile batzuen eta besteen arteko bizikidetza eta koordinazio bidezko parte hartzea.

Línea 8. Promover la educación en valores (respeto a la diversidad, igualdad de género…), la convivencia y la participación de forma coordinada entre distintos agentes educativos.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2006 Legearen 17. artikuluaren arabera, udalerrien berezko eskumenak dira, besteak beste, “36) gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea”.

Que el art. 17 de la Ley 2/2006, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, establece que son competencias propias de los municipios, entre otras, 36) la planificación, ordenación y gestión de políticas de Juventud.

Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoak, ezartzen du 34. artikuluan, haur eta nerabe guztiek dutela atsedenerako, jolaserako eta beren adinari dagozkion aisialdiko jolas-

De otro lado, el art. 34 de la Ley del Parlamento Vasco 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia, establece que todos los niños, niñas y adolescentes tienen derecho al descanso, al juego y a las actividades recreativas de

jardueretarako eskubidea, beren garapen-prozesuaren funtsezko elementu gisa. Halaber, kirola eta beste jarduera fisiko batzuk egiteko eskubidea aitortzen du, eta herri-administrazioei ezartzen die eskubide hori betetzen dela eta beharrezko instalazioak eta joko-espazioak sortzen direla zaintzeko betebeharra.

ocio propias de su edad, como elementos esenciales de su proceso de desarrollo. También reconoce su derecho a practicar deportes y otras actividades físicas, imponiendo a las Administraciones Públicas la obligación de velar por su cumplimiento y la creación de las instalaciones y los espacios de juego necesarios.

Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkartea Errekaldeko auzoan txertatuta dago eta eremu soziokomunitarioan esku hartzeko helburu soziala du, gizarte eta kultur arloko gainerako erakundeekin elkarlanean. Auzoko ume, nerabe eta gazteei begira zenbait jarduera sustatzen ditu.

Que la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku es una asociación de participación y desarrollo comunitario de Rekalde, que tiene como objeto social intervenir en el ámbito socio-comunitario, en coordinación con el resto de entidades sociales y culturales, fomentando actividades y programas dirigidos a infancia, adolescencia y juventud.

Bilboko Udalak, Gazteria eta Kirol Sailaren eta udaleko beste sail batzuen bidez, hirugarren sektorearekin lankidetzan, ume, nerabe eta gazteen garapenean lagunduko duten programak eta jarduerak sustatzen ditu, aisialdian kultura osasungarria, sortzailea sustatuz eta uri honek bultzatzen dituen balioetan -errespetua, berdintasuna, elkartasuna eta bizikidetza- oinarritua eraikiz.

Que el Ayuntamiento de Bilbao a través del Área de Juventud y Deporte y otros departamentos municipales, promueve, en colaboración con el tercer sector, programas y actividades que contribuyan al desarrollo de la población infantil, adolescente y joven, fomentando la construcción de una cultura del ocio saludable, creativa y basada en los valores de respeto, igualdad, solidaridad y convivencia que esta ciudad promueve.

Bi aldeek modu oso positiboan baloratzen dute azken urteotan elkarrekin lan egiteko izan duten esperientzia, eta lankidetza-eremu horretan aurrera egiten jarraitzeko aukera ematen du, erronka partekatu batzuetan oinarrituta.

Que ambas partes valoran muy positivamente la experiencia de trabajo conjunto que han venido desarrollando a lo largo de estos últimos años y que posibilita seguir avanzando en este espacio de colaboración sobre la base de unos objetivos compartidos.

Azaldutako guztia ikusita, diru-laguntza izenduna bideratzeko hitzarmena formalizatzea erabaki dutela, honako klausula hauen arabera:

Que a la vista de todo lo expuesto acuerdan formalizar el convenio por el que se canaliza la Subvención nominativa conforme a las siguientes:

Azaldutako guztia ikusita, diru-laguntza izenduna bideratzeko hitzarmena formalizatzea erabaki dutela, honako klausula hauen arabera:

Que a la vista de todo lo expuesto acuerdan formalizar el convenio por el que se canaliza la Subvención nominativa conforme a las siguientes:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteari diru-laguntza izenduna bideratzea, Errekalde auzoko haurrei, nerabeei eta gazteei lehentasunez zuzendutako esku-hartze komunitarioko programa bat garatzeko.

BIGARRENA.- Programaren helburuak

Programaren hedapena eta ezarpena progresiboa izango da, eta honako helburu hauek ditu:

- Orokorrak

- Haurrei (3-11 urte), nerabeei (12-17 urte) eta gazteei (18-30 urte) zuzendutako aisialdi sozioedukatiboko programazioa eskaintzea, kolektibo horien osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzeko.
- aisialdia gizarte-kohesiorako, bizikidetzarako eta berdintasun-, elkartasun- eta aniztasunarekiko errespetu-balioak sustatzeko tresna gisa erabiltzea.
- Aisia, kirola eta ekintza soziokulturala sustatzea, garapen pertsonalerako, gizarte-kohesiorako eta bizikidetzarako tresna baliagarri gisa.

- Umeek beren komunitateetan subjektu aktibo eta aldaketa eragile moduan parte har dezaten sustatzea.
- Familiei laguntzea laneko bizimodua eta norberarena eta familiakoa uztartzeko beharrizanetan.

- Jardunbideak

CLAUSULAS

PRIMERA.- Objeto de convenio

Constituye el objeto del convenio canalizar la Subvención nominativa a la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku para el desarrollo de un Programa de intervención comunitaria dirigido prioritariamente a la población infantil, adolescente y joven del barrio de Rekalde.

SEGUNDA.- Objetivos del Programa

El Programa, cuyo despliegue e implementación tendrá carácter progresivo, se plantea con los siguientes objetivos:

- Generales:

- ofrecer un espacio y oferta de programación de ocio socioeducativo dirigidos a la población infantil (3 a 11 años), adolescente (12-17 años) y personas jóvenes (18-30 años) que contribuya a mejorar la salud y bienestar de estos colectivos.
- utilizar el ocio como herramienta para la cohesión social, la convivencia y la promoción de valores de igualdad, solidaridad y respeto a la diversidad,
- impulsar el ocio, la práctica deportiva y la acción sociocultural como herramientas útiles para el desarrollo personal, la cohesión social y la convivencia.
- promover la participación de niños/as, adolescentes y personas jóvenes como sujetos activos en sus comunidades y agentes de cambio.
- apoyar a las familias en sus necesidades de conciliación personal, familiar y laboral.

- Operativos

- helburuak partekatzen dituzten eta beren jarduera auzoan garatzen duten eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetza-sare egonkor bat sor dadin sustatzea.
- Haur, nerabe eta gazteentzako ekipamenduak eta programazioa hobetzeko ekintzak identifikatu eta bultzatzea.
- baliabideen eta programen multzo partekatu bat egitea, kudeaketan eraginkortasun-irizpideak txertatu ahal izateko,
- Prebentzio-ikuspegia lehenestea jarduketa-programetan, eta familien eta gizarte-laguntzako sareen gaitasun sozialak eta pertsonalak hobetzea
- Gazteek parte hartzeko plataforma gazte bat sustatzea, auzoa hobetzeko ekintzak garatzeko ahaldunduko dituena.

- promover la creación de una red estable de colaboración entre agentes públicos y privados que compartan objetivos y desarrollen su actividad en el barrio,
- identificar e impulsar acciones de mejora en los equipamientos y programación infantil, adolescente y juvenil,
- elaborar una cartera compartida de recursos y programas que posibilite incorporar criterios de eficiencia en su gestión,
- priorizar la visión preventiva en los programas de actuación y mejorar las competencias sociales y personales de las familias y de las redes de apoyo social
- impulsar una Plataforma Joven de participación que empodere a los y las jóvenes en para el desarrollo de acciones para la mejora del barrio.

HIRUGARRENA.- Jarduketa-eremua

Programaren lehentasunezko erreferentzia-esparrua Errekalde auzoa izango da, bai bere lurralde-eremuari eta ekipamenduei dagokienez, bai auzotarrei dagokienez.

TERCERA.- Ámbito de actuación

El programa tendrá como marco de referencia prioritario el barrio de Rekalde, tanto en lo referente a su ámbito territorial y equipamientos, como a su población vecinal.

LAUGARRENA.- Erakunde laguntzailearen betebeharrak

Oro har ezarritakoez gain, honako hauek dira erakunde laguntzailearen betebehar bereziak:

- istripuetarako eta erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatzea, programa gauzatzean gerta daitezkeen ezbehar edo kontingentzia pertsonalak estaltzeko.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako printzipioak eta zehaztapenak betetzea.
- Euskararen erabileraren normalizazioaren arloan indarrean dagoen araudian jasotako xedapenak betetzea.
- Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 13. artikuluan ezarritakoa betetzeko,

CUARTA.- Obligaciones de la entidad colaboradora

Además de las establecidas con carácter general, son especiales obligaciones de la entidad colaboradora las siguientes:

- contratar una póliza de seguro de accidentes y de responsabilidad civil que dé cobertura a los siniestros o contingencias personales que pudieran producirse durante la ejecución del programa.
- dar cumplimiento a los principios y determinaciones contempladas en la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- dar cumplimiento a las disposiciones contempladas en la normativa vigente en materia de normalización del uso del Euskera.
- En cumplimiento de lo establecido en el artículo 13 de la Ley Orgánica de Protección Jurídica del

Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteak, jarduera hasi aurretik, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko ditu Gazteria eta Kirol Arloan, langile guztiei dagokienez. Era berean, hitzarmena indarrean dagoen bitartean ordezkapenak badaude, berri horien ziurtagiri negatiboak ere aurkeztuko dira.

Menor, la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku deberá presentar en el Área de Juventud y Deporte, antes del inicio de la actividad, las certificaciones negativas del Registro Central de delincuentes sexuales, de todo el personal. Asimismo, en caso de que durante la vigencia del convenio haya sustituciones, se presentarán igualmente estas certificaciones negativas.

BOSGARRENA.- Iraupena

Diru-laguntza izenduna bideratzen duen hitzarmenak urtebeteko iraupena izango du, eta indarraldia 2026ko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

QUINTA.- Duración

El Convenio por el que se canaliza la Subvención nominativa tendrá una duración de 1 año, comenzando su vigencia el día 1 de enero y finalizando el 31 de diciembre de 2026.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren lankidetza eta jarraipen Batzordea

Akordio honetan aurreikusitako helburuak garatzeko, Koordinazio Batzorde bat sortu da Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteak eta Bilboko Udalak osatua. Batzorde horretan ordezkaritza izango du Gazteria eta Kirol Sailak, beste udal sail eta erakunde batzuen parte-hartzearen kalterik gabe, jorratu beharreko gaien arabera.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

SEXTA.- Comisión de colaboración y seguimiento del Convenio

Para el desarrollo de los fines previstos en este acuerdo, se crea una Comisión de Coordinación integrada por Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku Elkartea y el Ayuntamiento de Bilbao, que estará representado por el Área de Juventud y Deporte, sin perjuicio de la participación de otras Áreas y entidades municipales en función de las cuestiones a tratar.
Esta comisión tendrá las siguientes funciones:

- jardueren programa betetzeari jarraipena egitea,
- akordio hau betetzeko neurri egokiak orientatzea, antolatzea eta adostea, eta hura garatzean sortu daitezkeen arazoak konpontzea.
- interes komuneko eremuak identifikatzea, proposamenak egiteko eta formulatzeko helburuz, akordioaren baldintzen itzalpean. Proposamen horiek ez dira lotesleak izango eta ez dira gauzatuko harik eta alde biek onartu arte.
- adostutako lan-planaren garapenean komunikazio- eta zabalkuntza-ekintzak adostea eta beraien jarraipena egitea.

- seguimiento de la ejecución del programa anual de actividades
- orientar, organizar y acordar las medidas pertinentes para la ejecución del presente Acuerdo y resolver cuantas cuestiones pudieran surgir en su desarrollo,
- identificar las áreas de interés común para elaborar y formular propuestas al amparo de los términos de acuerdo, que no serán vinculantes ni se harán efectivas hasta su aprobación por ambas partes,
- acordar y hacer seguimiento de las acciones de comunicación y difusión generadas en el desarrollo del plan de trabajo acordado,

ZAZPIGARRENA.- Lankidetza ekonomikoa

7.1.- Bilboko Udalak diru-laguntza izenduna emango dio Gazteleku Komunitate-garapenerako Elkarteari, Gazteria eta Kirol Sailaren 2026ko aurrekontuan onartutakoa (2026/00192 EPP - APG 2026 12000 23181 4819900), 237.700,00 eurokoa.

7.2.- Dirulaguntzaren ordainketa: zenbateko guztia ordainketa bakarrean ordainduko da hitzarmena sinatu ondoren; eta ez zaio inolako bermerik exijituko onuradunari.

7.3.- Hitzarmen honetan finkatutako dirulaguntza bateragarria izango da nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edota baliabideekin. Gazteleku Komunitate Garapenerako Elkarteak horren berri eman beharko dio Gazteria eta Kirol Arloari. Ekarpen guztiek ezingo dute gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, eta, kasu horretan, dagokion itzulketa egin beharko da.

7.4.- Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta

SÉPTIMA.- Colaboración económica

7.1.- El Ayuntamiento de Bilbao concederá a la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku la subvención nominativa aprobada en el Presupuesto 2026 del Área de Juventud y Deporte (PEP 2026/00192 - APG 2026 12000 23181 4819900) que asciende a la cantidad de 237.700,00 €.

7.2.- Pago de la subvención: el abono de la cantidad total se efectuará en un único pago tras la firma del Convenio, no exigiéndose para ello garantía alguna al beneficiario.

7.3.- Compatibilidad con otras subvenciones: la subvención concedida al amparo del presente Convenio, será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales o de ingresos propios. Siendo obligación de la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku comunicar tales extremos al Área de Juventud y Deporte. El conjunto de aportaciones no podrá superar el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente.

7.4.- Gastos subvencionables: se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad

hitzarmenaren indarraldian egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitekeen gastua Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuan kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak (14.999€ euro, BEZ kanpo, ondasunen eta ekipoen, zerbitzuen eta abarren hornidurarako) baino handiagoa denean, kontratatu aurretik, onuradunak zenbait hornitzaileren hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago holakorik egin, eskaini edo hornitu dezakeen erakunde nahikorik edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada. Aurkeztutako eskaintzen artean -dirulaguntzaren eskarian edo justifikazioan erantsi behar dira horiek- eraginkortasunaren eta ekonomiaren irizpideen arabera aukeratuko da. Eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez bada, memoria egin behar da eskaintza hori aukeratu izana beren-beregi justifikatzeko.

7.5.- Diruz lagundutako jarduera azpikontratatzea: Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteak diruz lagundutako jardueraren % 10 baino ezin izango du azpikontratatu.
Diruz lagundutako jarduerak guztiz edo zati batean gauzatzeko, ezin izango da inondik ere itunik egin Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren art.13. artikuluan ezarritako debekuren bat duten pertsona edo entitateekin, entitate onuradunarekin loturaren bat duten pertsona edo entitateekin (Erregelamenduaren 67.2. artikuluan adierazitako kasuetan joko da lotura dagoela) eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7. artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin.
7.6.- Justifikazioa: Gazteleku Komunitate Garapenerako Elkarteak dirulaguntzaren xedea betetzen dela frogatu beharko du 6 hilabeteko epean, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik aurrera zenbatuta. Horretarako, justifikazio-kontua eta Auditorearen Txostena aurkeztuz egingo da.Honako elementu hauek eduki beharko ditu:

subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo de vigencia del Convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.
Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley de Contratos del Sector Público para el contrato menor (14.999€ IVA excluido en el supuesto de suministro de bienes y equipos, servicios…), el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores previamente a la contratación de los mismos, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen , presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.
7.5.- Subcontratación de la actividad subvencionada: la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku únicamente podrá subcontratar un 10% de la actividad subvencionada.
En ningún caso, podrá concertarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art.13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con el beneficiario (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 67.2 del Reglamento), ni con las demás personas previstas en el art. 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

7.6.- Justificación: la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku deberá justificar el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención en el plazo de 6 meses contados desde la finalización de la actividad subvencionada. La justificación se hará mediante la presentación de la Cuenta Justificativa con Informe de Auditor. La documentación a presentar incluirá:

1.- Hitzarmen honetako baldintzak bete direla frogatzen duen memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, eta baita jarduerak zein hizkuntzatan egin diren ere.

2.- Programa betetzeko gastuen eta dirusarreren balantzea, Udalak emandako ereduari jarraituta.

3.- Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribatutako kontu-auditore baten txostena. Haien izendapena eta jarduna Diru-laguntzen Erregelamenduko 74. artikuluan, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduan aurreikusitakoa. Agindu horren bidez, Estatuko sektore publikoaren esparruan dirulaguntzak justifikatzen dituzten kontuak berrikusteko lanak egitean kontu-auditoreek jarduteko araua onartzen da. (2007/05/25eko BOE, 125. zk.).

Berrikusi beharreko dokumentazioan egongo da, programa betearazteko aurreikusitako epearen barruan egiten diren gastuak egiaztatzen dituen jatorrizko justifikazio-dokumentazioa, honako hauek bereiziz (baldin eta entitateak originalak itzultzeko eskatzen badu, kopia ere aurkeztu beharko du): programa gauzatzearekin zuzenean zerikusia duten kostuak, eta guztiz justifikatuak ordainagiri bidez edo frogantza-balio baliokidea duten bestelako agirien bidez.

Justifikatzen den programari buruzkoak bakar-bakarrik izango dira dokumentuok eta datu hauek jasoko dituzte:

- Onuradunaren identifikazioa.

1.- Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en el presente Convenio, en la que se indicarán las actividades realizadas y los resultados obtenidos, así como el idioma en que se han realizado las actividades.

2.- El balance de gastos e ingresos correspondiente a la ejecución del Programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento.

3.- Informe de un auditor de cuentas inscrito como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas. Su designación y actuación deberán ajustarse a lo previsto en el art. 74 del Reglamento de Subvenciones, así como a lo previsto en la Orden del Ministerio de Economía y Hacienda Orden EHA/1434/2007, de 17 de mayo, por la que se aprueba la norma de actuación de los auditores de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público estatal. (BOE núm. 125, 25/5/2007).

La documentación a revisar incluirá la documentación original justificativa que acredite los gastos -en el caso que la entidad solicite devolución de los originales deberá presentar además copia de los mismos- efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose, a estos efectos: los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente. Estos documentos se circunscribirán únicamente al programa que justifican, deberán incluir, en todo caso, los siguientes datos:

- La identificación de la persona beneficiaria.

- Gastuaren xedearen deskripzioa; xede horrek zuzeneko lotura izan beharko du programaren betearazpenarekin.

- Legez exijitu daitezkeen gainerako datuak.

- La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

- Demás datos legalmente exigibles.

Salbuespen modura, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsonek noizean behin egiten dituzten jarduerak badira, adostutako prestazioaren zenbatekoaren hartze-agiria agertzen duten dokumentuak aurkeztea onar daiteke, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaportea). Zenbatekoa 200 eurotik gorakoa denean, gainera derrigorrezkoa izango da hartzailearen bankuko kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Con carácter excepcional, en supuestos de actividades realizadas ocasionalmente por personas que no ostentan la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de los documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte de la persona) de la persona perceptora. Cuando su importe sea superior a 200€, además, se deberá acompañar el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

Langile-gastuak, berriz, nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztuz egiaztatuko dira.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la Seguridad Social.

Zeharkako kostuak: beren-beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo erakunde onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrita eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa. Justifikazioa egiteko orduan, dirulaguntza jasotzeko oinarri gisa entitateak aurkeztu duen aurrekontuko portzentaje berbera izango da zeharkako kostuetan onarturiko portzentajea, eta justifikatutako zuzeneko gastuen gainean aplikatuko da.

De los costes indirectos, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes deberán imputarse por la entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, se pueda imputar una cantidad superior al 10 por ciento de los costes del programa subvencionado. A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

ZORTZIGARRENA.- Aldaketak programan

Programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, baimena eskatu behar zaio Bilboko Udalari idatziz; Udalak beren-beregi eman behar du horretarako baimena.

OCTAVA.- Modificación del Programa

Cualquier modificación sustancial del Programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao quien deberá expresamente autorizarla.

Funtsezko aldaketak egiteko eskariak arrazoitu egin beharko dira, eta, hala bada, aurrekontuan eta kronograman izango duten eragina zehaztu beharko da. Gobernu Batzordeak Gazteria eta Kirol Sailari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko eskumena.
Horri dagokionez, honako hauek jotzen dira funtsezko aldaketatzat:

- aldaketak egitea hitzarmenean aurreikusitako helburu orokor eta berezietan.

- onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako aldakuntzak (partida batetik bestera egiten diren mugimenduen bidezko aldaketek ezingo diete eragin zeharkako kostuei), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Dirulaguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa, berriz, justifikazioaren unean onartu ahal izango da, betiere onarpen horrek ez badakar hirugarrenen eskubideak kaltetzea.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando, en su caso, las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área de Juventud y Deporte correspondiente la autorización de estas modificaciones.
A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- cambios en los objetivos generales y/o específicos previstos en el acuerdo.

- variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa subvencionado.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

BEDERATZIGARRENA.- Udalaren lankidetzaren publizitatea

Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteak publiko egin beharko du Udalaren laguntza, Udalaren logotipoa jarriz sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektroniko zein ikus-entzunezkoetan edo idatzizko hedabideetan argitaratzen diren iragarkietan.

Era berean, lankidetzaren eremuaren barruan dagoen programaren edo jardueraren publizitatea egiteko elementu moduan erabiliko diren kartelak, testuak eta dokumentuak hizkuntza ofizial bietan, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, idatzita egongo dira. Era berean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira laguntza jaso duen programa sustatzeko jendaurreko agerraldiak eta megafoniaz emandako mezuak, hurrenkera horretan.

NOVENA.- Publicidad de la colaboración municipal

La Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku deberá hacer pública la colaboración municipal incluyendo el logotipo del Ayuntamiento en los materiales impresos que genere (carteles, folletos, hojas informativas...), en las placas conmemorativas, en los medios electrónicos o audiovisuales o en los anuncios que pueda publicar en los medios de comunicación escrita.

Asimismo, se deberán utilizar ambas lenguas oficiales, euskera y castellano, en los carteles, textos y documentos que se elaboren como elementos de publicidad del programa o actividad incluida en el ámbito de la colaboración. De igual modo, las intervenciones públicas de promoción ligadas a la actividad objeto de colaboración, así como los mensajes que se comuniquen por megafonía, serán bilingües utilizando el euskera y el castellano en ese orden.

Erabiltzen den komunikazio- edo zabalkunde-tresna orok errespetatu beharko ditu gizonen eta emakumeen berdintasunaren arloan indarrean dagoen legerian jasotako zehaztapenak, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako, Herritartasunerako eta aniztasunerako udal-planetan eta Bilbao Balioen Hirian jasotakoak ere.

Cualquier herramienta de comunicación o difusión que se utilice deberá respetar las determinaciones recogidas en la legislación vigente en materia de igualdad de hombres y mujeres, así como las contempladas en los planes municipales de Igualdad de Mujeres y Hombres, Ciudadanía y Diversidad y Bilbao Balioen Hiria.

HAMARGARRENA.- Aplikatu beharreko araudia

Hitzarmen honetan xedatu ez den orori dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren xedapenak eta hura garatzen duen erregelamenduzko araudia beteko dira.
Hitzarmena egin duen entitateak bere gain hartzen du hitzarmen honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzea, bai eta dirulaguntzei buruzko lege orokorrean eta aplikatzekoa den gainerako legerian ezarritakoa ere, eta adituko da ezen, era batera edo bestera iruzurra egiten bada edo errealitatea faltsutzen bada dirulaguntza publikoren bat lortzeko asmoarekin, gerta litekeela erantzukizun penala izatea, Zigor Kodearen 308. artikuluan ezarritakoaren arabera.
Arau-hauste penala da:

1. Administrazio publikoengandik 10.000 euro baino gehiagoko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, haiek lortzeko betekizunak faltsutuz edo haiek lortzea eragotziko luketen datuak ezkutatuz.
2. Administrazio publikoen funtsekin osorik edo zati batean ordaindutako jarduera bat egitean, funts horietatik 10.000 euro baino gehiago erabiltzea dirulaguntza edo laguntza eman zen helburuak ez diren beste batzuetarako.

DÉCIMA.- Normativa Aplicable

En lo no dispuesto en el presente Convenio se estará a las disposiciones de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa reglamentaria que la desarrolla.
La entidad convenida se compromete a cumplir con los requisitos y obligaciones establecidas en este convenio, en la ley general de subvenciones y demás legislación aplicable, entendiendo que cualquier intento de fraude o falsificación de la realidad con el objeto de obtener una subvención pública puede dar lugar a responsabilidad penal de acuerdo con lo establecido en el artículo 308 del Código Penal, que determina que:

Constituye infracción penal:

1. La obtención de subvenciones o ayudas de las Administraciones Públicas por importe superior a 10.000 € falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido.
2. En el desarrollo de una actividad sufragada total o parcialmente con fondos de las Administraciones Públicas, la aplicación de los mismos en una cantidad superior a 10.000 €, a fines distintos de aquellos para los que la subvención o ayuda fue concedida.

HAMAIKAGARRENA.- Datuen babesa

Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteak konpromisoa hartzen du arlo honi aplikagarri zaion araudian aurreikusitako eskakizunak betetzeko.
Nolanahi ere, Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkartea arduratuko da datu pertsonalak tratatzeko

UNDÉCIMA.- Protección de datos

La Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku se compromete a cumplir las exigencias previstas en la normativa aplicable a esta materia.
En todo caso, la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku es la responsable de obtener las autorizaciones necesarias de las personas interesadas

interesa duten pertsonen beharrezko baimenak lortzeaz, batez ere, irudiei dagozkienak.

Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteak hitzarmen honen esparruan jaso dituen datu pertsonalak Udalari eman beharko balitzaizkio, behar diren baimen guztiak lortu beharko lituzke.

para el tratamiento de datos de carácter personal, principalmente, los que a imágenes se refieran.

Si fuera preciso ceder al Ayuntamiento datos de carácter personal que la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku hubiera recabado en el marco de este convenio, deberá igualmente, obtener todas las autorizaciones necesarias.

HAMABIGARRENA.- Hitzarmena amaitutzat jotzea

Hitzarmena amaitutzat emateko arrazoiak izango dira, hasieran ezarritako epea edo berariazko luzapenak amaitzeaz gain, legean jasotako arrazoi orokorrak eta hitzarmen honetan ezarritako edozein betebehar ez betetzea, eta, bereziki, honako hauek:

a) Gazteleku Komunitate-Garapenerako Elkarteak ez ordaintzea bere gain hartutako edo berari dagokion diru-zenbatekoetako edozein.

b) Bilboko Udalari urtero ez ematea urteko jardueren programak edo egindako jardueren memoriak.

c) Bilboko Udalak eskatu arren, garatzen diren jarduerei buruzko informazio gehigarria ez ematea.

d) Hirugarren estipulazioan aurreikusitako aseguru-poliza indarrean ez izatea.

e) Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta aplikatu beharreko arau konkurrenteetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

DUODÉCIMA.- Resolución del convenio

Son causas de resolución del convenio, además de la finalización del plazo inicialmente establecido o la de sus prorrogas expresas, las generales de la Ley y el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones fijadas en el presente convenio y, en particular, las siguientes:
a) la falta de pago de cualquiera de las cantidades cuyo pago haya asumido o corresponda a la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku.

b) no entregar anualmente al Ayuntamiento de Bilbao los Programas de actuaciones anuales o las Memorias de actividades realizadas.
c) no facilitar información adicional sobre las actividades que se desarrollan cuando el Ayuntamiento de Bilbao así lo solicite.
d) no tener en vigor la póliza de seguro contemplada en la Estipulación tercera.

e) el incumplimiento de las obligaciones establecidas en la Ley General de Subvenciones y normas concurrentes de aplicación.

HAMAHIRUGARRENA.- Kalte-ordaina

Hitzarmen hau iraungitzen denean, ohiko epea igarotzeagatik edo beste edozein arrazoirengatik, ez da inolako kalte-ordainik egongo Gazteleku Komunitate Garapenerako Elkartearen alde.

DECIMOTERCERA.- Indemnización

A la extinción del presente convenio, por transcurso del término convencional o por cualquier otra causa, no procederá indemnización alguna a favor de la Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku.

HAMALAUGARRENA.- Epaitegi eskudunak

Hitzarmen hau dela-eta auzirik sortzen bada, edo hitzarmena interpretatzeari, egikaritzeari edo betetzeari buruz desadostasunik ebatzi behar bada, Bilboko udalerriko jurisdikzioan dauden epaitegi eta auzitegien artean dagokionak izango du eskumena eta hark ebatziko du, Bilboko udalerria baita hitzarmenaren xede den lekua eta jarduerak gauzatzen diren lekua; eta hala izango da hala erabaki dutelako alderdiek, berariaz uko eginez legokiekeen beste edozein fuerori.

DÉCIMOCUARTA.-Tribunales competentes

Que el conocimiento de los litigios que se susciten en razón del presente convenio, para resolver cualquier controversia acerca de la interpretación, ejecución o cumplimiento del mismo, se someterá a los Jueces y Tribunales que corresponda la jurisdicción territorial del término municipal de Bilbao, por ser lugar donde se halla y desarrolla el objeto del convenio, por acuerdo de las partes y con renuncia expresa a cualquier otro fuero que pudiera corresponderles.

HAMABOSGARRENA.- Jakinarazpenerako helbidea

Hitzarmen honekin zerikusia duen edozein jakinarazpen egiteko, alderdiek hitzarmen honen goiburuan adierazitakoak adierazi dituzte helbide propiotzat.

DECIMOQUINTA.- Domicilio para notificaciones

Las partes señalan como domicilio propio a los efectos de cualquier notificación que tenga relación con el presente contrato los señalados en el encabezamiento del presente Convenio.

Alde biak ados daude hemen jasotako guztiarekin eta hori horrela dela agertzeko hitzarmen honen ale bi sinatu dituzte.

Las partes prestan su conformidad a todo lo aquí recogido, y en prueba de ello firman por duplicado el presente Convenio.

JUANA ELA ALMAGRO

MIREN ITXASO ERROTETA SAGASTAGOYA